

media aritmética, la obtención del indicador no es inmediata con la información disponible. Asimismo, no se justifican las diferentes ponderaciones de las variables que integran los índices y tampoco se explica de forma clara cómo se elabora el índice cuando hay variables que inciden de forma directa y otras lo hacen de forma inversa. Al final, la interpretación se resume en comparar un número relativo a Navarra con otro referido a España. Ciertamente, esta parte debiera mejorarse notablemente.

En suma, el libro objeto de reseña es un producto editorial del Gobierno de Navarra que tiene interés para un amplio espectro de ciudadanos, sean especialistas o no. Este libro forma parte de un amplio proceso de planificación en el que van a estar involucrados muchos agentes económicos y sociales. Las personas interesadas tienen la posibilidad de seguir su evolución a través de otros instrumentos de comunicación, entre los que cabe destacar boletines de difusión y una página en Internet (www.estrategianavarra.com).

Por último, y a modo de sugerencia, una vez que se ha publicado el documento final, quizá sería interesante publicar o hacer accesible al ciudadano diferentes monografías sobre aspectos concretos de la ETN en los que se explique con claridad y rigor los contenidos más relevantes, las acciones que se plantea llevar a cabo en el corto y medio plazo, la evolución de los indicadores y la metodología de su elaboración.

Referencias

VINUESA, J., ZAMORA, F., GÉNOVA, R. SERRANO, P. y RECAÑO, J. (1997): *Demografía. Análisis y proyecciones*, Editorial Síntesis, Madrid.

Manuel Rapún Gárate



ESPEZIALITATE-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak
Xabier Alberdi Larizgoitia; Iñaki Ugarteburu Gastañares (Argita.). – Leioa : Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 2003. – 327 or. : il. ; 24 cm. – ISBN: 84-8373-553-9

Izenburu bereko jardunaldi batzuetan aurkezturiko hitzaldi eta komunikazioen bilduma dugu liburu hau. Jardunaldiok Euskal Herriko Unibertsitateko campus nagusia den Leioan egin ziren 2002ko irailaren 16tik 18ra, unibertsitate horretako Euskara Institutuak antolatuturik. Bertan, nazioartean izen handia duten ikertzaile ospetsu batzuekin batera, Euskal Herrian hizkera berezien eta terminologiaren arloan diharduten izen ezagun gehientsuenak ageri dira.

Ez da ohikoa horrelako gaiari emandako liburuak argitaratzea gure herrian, eta atzera begiratu, badirudi jardunaldi edo biltzar bereziren baten bultzada beharrezkoa dela hizkera berezien eta terminologiaren gaineko ekoizpena zerbait ugaritu dadin. Gogora dezagun adierazi, eta are salatu ere izan den bezala, euskaraz terminologiaren praktika (batez ere lexikografikoa) haren teorizazioaren aurretik, askoz aurretik, ibili dela. 1970eko hamarraldiaren azken partekoa da UZEIren hiztegegintza terminologikoaren abiatzea, Jakinen Natur Zientziak hiztegiaren ondotik, baina 1997ra arte, UZEIk berak, HAEE/IVAPen lankidetzarekin antolaturiko Nazioarteko Terminologia Biltzarrera arte terminologiari buruzko monografia gutxi argitaratu zen.

Hizkera berezituaren eta terminologiaren gaiak izen horiekin euskaraz aztergai izaten hasi ziren lehen urte haietan aipagarriak dira, besteak beste, aitzindari lana egin zuten Zalbide, Sagarna eta Elhuyarreko beste kide batzuen ekarpenak alde batetik, eta Etxebarria, Ensunza edo Odriozolarenak bestetik, Uzeiko hiztegi batzuen hitzaurrez gainera, baina egia esan, ekoizpen teoriko-metodologikoa ez da oparoegia ez urte haietan, ez hurrengoetan.

Halaz eta guztiz ere, bada hizkera berezien eta terminologiaren munduan esparru bat argitalpenei dagokienez bederen, hornituagoa agertzen dena. Esparru juridiko-administratiboaz ari naiz. Izan ere, 1984 bezain laster agertzen da lehen monografia: Oñatin izandako *Euskara eta Administrazioari Buruzko 1. Ihardunaldiak*, izen bereko liburuan argitaratuak, eta oso bereziki, bost urte geroago hiri berean egindako *Administrazioiko hizkera eta terminologiaz jardunaldiak*, aurrekoak bezala HAEE /IVAPek antolatuta. Jardunaldi haiek eta han aurkezturiko hitzaldi eta eztabaiden ekarpenak biltzen dituen liburua ezinbesteko dokumentuak dira euskal hizkera berezien eta terminologiaren egoera, eta gai horiei buruzko ikerketa edo gogoeten historia eta garapena ezagutzeko. Besteak beste, orduan plazaratu zen oraingo liburu honetantxe berriro irakur dezakegun Terminologia Batzorde(ofizial)aren egitasmoa. Kasu hartan, administrazioaren hizkera berezia eta terminologia, euskal teknolektoei eta terminologiari buruz modu orokor batean aritzeko aitzakia eta parada izan ziren, eta horretan datza, hain zuzen ere, jardunaldi haien garrantzia.

Hurrengo urratsa, eta honetan bai urrats kualitatiboaz hitz egin daitekeela, aipaturiko 1997ko Nazioarteko Terminologia Biltzarra izan zen. Nazioartetik etorritako iker-tzaileen ospea alde batetik, eta bestetik, bertan euskaraz gai horiei buruz esatekorik zeukaten gehien-gehienek ekarpenak bildu izanak, nahitaezko liburua bihurtzen dute haien aktak jasotzen dituen liburua. Baina esan bezala, ez dago harrotzeko moduko lan orokorrik 1989tik 1997ra eta berriro ere uzta eskasa jasotzen da 1997tik orain esku artean dugun jardunaldi-bilkurara arte. Gaiok modu zabal-orokorrean tratatzen dituzten liburuez ari gara, zeren han-hemen argitaraturiko artikulak eta monografiak ere zalantzarik gabe ugaritu egin dira azken hamarraldian. Aurreko garaietan bezala, hizkera juridikoa eta administratiboa izan dira bai aldizkarietan, bai monografiatan, bai jardunaldietan, eta baita tesi doktoraletan ere, alderdi teoriko eta metodologikoetatik lantzen dituzten argitalpenen gai ugariak.

Esku artean dugun liburua, *Espezialitate hizkerak eta terminologia: Jardunaldiak*, hitzaldi eta komunikazio desberdin mordo baten bilduma izanik, ez da erraz iruzkin bakar batera biltzen. Ondoko lerroetan saiatuko naiz, erreseina batek ezarritako muga estuen barruan, jardunaldietako bost hitzaldi/artikulu nagusien berri xehetuxegoa ematen eta gainerako komunikazioak taldeetan bilduaz, labur-labur aipatzen.

Jardunaldietan bezala, liburuaren zabaltze-lana Cabré irakasle ospetsuaren "Terminología y normalización lingüística" artikuluari dagokio. Kataluniar terminologia-ikertzaile ezaguna, bereziki ongi kokatuta dago euskaldunoi terminologiari buruzko ira-

kaspenak emateko, aspalditik izan baita hemengo terminologoen eredu eta are irakasle zuzena. Gainera, Kataluniakoa eta katalan hiztuna izanik, gurearekin lotura anitz dituen hizkuntz unibertso batekoa da. Jardunaldi eta liburu honetan jasotako hitzaldiak argiro erakusten du ez bakarrik sentiberatasun guttiz berezia duela hizkuntza txiki eta gutxietuekiko, baizik eta gogoeta eta ikerlan sakonak egin dituela egoera horietako hizkuntzak eta terminologiak dauzkaten loturei buruz.

Hitzaldi-artikulu horretan, sarrera-orrialde batzuetan laburki azaltzen du zertan dagoen egun terminologiari eta terminoari buruzko bere teoria, Wüster-en Terminologiaren Teoria Orokorra neurri handi batean gainditu duena. Terminologiaren eta terminoaren isuri linguistikoa, kognoszitiboa eta komunikatiboa azaldu ondoren, terminologia normalizazio bidean dauden hizkuntzen osagai bazterrezina dela agertu eta terminologiaren normalizazioarekin zerikusia duten hainbat gai tratatzen ditu. Bereziki interesgarri iruditu zaigu 7. atala, ondorioak agertzen dituen. Horien artean azpimarratuko genuke benetako zailtasun objektiboa dela egungo munduan, hainbat gairen inguruko ezagutzaren berrikuntza (eta hortaz, terminologiaren sorkuntza) lurberako toki gutxi batzuetan metaturik egotearen ondorioz, praktikan monolinguismoak agintzea. Baina benetako zailtasun horren aurrean sortzen diren erantzunak eta jarrerak ez dute zertan bakarrik izan behar. Badira gertaera hori besterik gabe ontzat emanik beren hizkuntza propioak esparru espezializatuetan erabiltzeari uko egiten diotenak, eta badira ere hizkuntza guztiak esparru guztietan erabiltzeko (besteena ukatu gabe) ahalegina egitea aldarrikatzen dutenak, hori ikusten baitute bide bakarra hizkuntzak guttiz gaurkotuta egon daitezen, eta eleaniztasunari eusteko bide bakarra.

Bigarren artikulua, “Ciencia y lexicografía” izenburua daramana, Bertha Gutierrez Rodilla, *La Ciencia empieza en la palabra* liburu jadanik klasikoarengatik ezagunaren hitzaldi nagusia da. Artikulu honetan, izenburuak iragartzen duen gai guttiz orokorretik ihes eginez, hasieratik ohartarazten gaituen bezala, hiztegi espezializatuetan nahiz hizkuntzak orokorretan adigai zientifikoak tratatzerakoan aurkitzen diren zailtasunak eta okerrak analizatzen ditu. Hasteko gaia, hiztegi espezializatuari buruzkoa, berehala agortzen du egileak, adituei berei balio gutxiko izaten zaizkiela, eta aditu ez direnei, are gutxiagoko. Ondoren aztertutako gaia da nolako tratamendua izaten duen zientzia-lexikoak hizkuntza orokorreko hiztegietan. Azterketa horien ondorioz Bertha Gutierrezek dio alde batetik hiztegi horien kontserbadurismoak bereziki gaiezak egiten dituela zientziaren aurrerapen nagusiei erantzuteko, eta bestetik aparteko inkoherentziak ageri direla zein terminori sarrera eman eta zeini ukatu erabakitzerakoan. Hiztegi orokorretako lexiko zientifikoa nola garatzen den ere kritikagarri da egilearen iritziz. Hitzaldian eta artikuluan aztertutako beste gaia, interneten aurki daitekeen lexikografia zientifikoa eta teknikoa da. Interneten ezaugarri orokorrak, besteak beste ingelesezko orrien eta beste edozein hizkuntzetako orrien artean, kopuruari dagokionez bederen, dagoen alde ikaragarria edota edukien kontrol eza, aipatu lexikografiaren kasuan are nabarmenago agertzen direla dio. Horiek horrela, hizlariaren iritziz, hizkuntzaren kalitateari dagokionez, fidagarritasun eskasa dauka sareko lexikografia zientifikoak, ingeles hizkuntzak beste hizkuntzetako hiztegiak alde edo moldez kutsatzen dituelako, eta edukiari dagokionez, informazioaren ugaritasun kontrolgabeak dakar bilatzaileak alde aurretik ezagutza sendo samarrak eta hizkuntzaren sen sakona eduki ezean, bilaketaren emaitzak fidagaitzak izatea.

“Terminologia eta normalizazioa Euskal Autonomia Erkidegoan” hitzaldi-artikulu nagusiaren arduraduna aspaldiko ezaguna du euskal terminologiak. Arazeli Diaz de Lezanak urte luzeetan dihardu esparru praktikoan zein teorikoan terminologiaren plan-gintza eta normalizazioa lantzen; orain, Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailbu-

ruordetzan ekiten dio egiteko horri, terminologiaren zuzendari gisa. Jardunaldietan aski berria zen albistea eman zigun: hainbat urtetan iragarritako Terminologia Batzorde ofiziala sorrarazten zuen dekretua 2002ko uztailaren 16an onartua zen. Batzorde berri horren osaera eta eginkizunak zein izango diren zehaztu ondoren, Euskalterm, euskararen terminologia banku orain publikoak batzorde horren betekizunetan izango duen egitekoa azaltzen du. Batzordeak, EAEkoa soilik, eta ez euskal hiztunen eremu osokoa izateak dakarkion desabantailaren gainetik, terminologian diharduten eragile guztien topagune eta erreferentzia izan nahi du. Datu sailkatu anitz eta literatura gutxi duen artikuluan egileak zehatz mehatz aletzen ditu Batzordearen jarduna, irizpideak, oso bereziki mailegu terminologikoei buruzko irizpideak, neologiaren eta neonimiaren jarraipen xehetua egiteko asmoa eta beste hainbat gai. Bereziki azpimarratzen du Euskaltermek, erabiltzaile guztiekiko harreman-bidea izatea lortzen duen heinean izan beharko lukeen eginkizun garrantzitsua. Bide horretatik, hizkuntzaren teknologiak onartzea eta gogotik lantzea euskararentzat hil edo biziko erronka dela esanaz burutzen du bere artikuluko trinkoa.

Laugarren ekarpenak, "Euskalterm eta terminologiako datu-baseak" izenburu nagusiaren pean "Datu-base terminologikoak eta datu-banku terminologikoak: ezaugarriak eta desberdintasunak" darama azpi-izenburua. Egilea, Miel Loinez, nekaezineko Uzeikidea, ondo kokatuta dago gaiaz hitz egiteko, urte asko baitaramatza terminografian, eta zehazki Euskaltermen zuzendaritzan. Artikulu honetan, Arazeli Diaz de Lezanarenean aipatzen den Euskaltermen datu-bankuaren ezaugarriak, ahalmenak eta eginkizunak azaltzen dira maila guztiz deskriptiboan. Azpituak dioen bezala, datu-base terminologiko baten eta gai bereko datu-banku baten arteko desberdintasunak azaldu ondoren, Euskaltermek, dagoen euskal datu-banku terminologiko bakarrak, orain arte egin duena, eta hemendik aurrera, EAEko Terminologia Batzordea eratu ondoren, lan terminologiko guztien bilgune eta hedagune gisa eskaintzen dituen posibilitateak aurkezten dira. Horrelako datu-banku bat mantentzeko behar den gutxieneko azpiegitura zein den xehetzen du bukaeran; horren irakurketa zein ote den igarkizun dirudi: egilearen eszeptizismoaren agerpen agian.

Hitzaldi nagusietako bosgarrena, Iñaki Ugarteburu, liburu honen argitaratzaileetako bat, eta Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuko terminologiaren arduradunarena da eta "Euskara Institutuaren terminologia-lana: Erabiltzaileentzako terminologia" izenburua du. Hogeita bi orrialdeko artikuluko trinkoan bizpahiru dira zuzenean EHUko erakunde haren terminologia-lana zer den edo izan behar duen tratatzen dutenak. Lehenik sarrera-atalean, zeinetan unibertsitateak, elebidun izatea erabakitzen duen unetik, terminologiaren sortzaile, hedatzaile eta erabiltzaile gisa dituen terminologia beharren zer nolakoak azaltzen dituen, eta aurrerago, 'Terminologia Euskara Institutuan' izeneko atal laburrean. Atal horretan, oinarri metodologiak finkatu ondoren, erakundearen terminologia-lanerako irizpide nagusiak zerrendatzen ditu. Egilearen beraren hitzak gertutik jarraituz honela laburtuko ditugu: lehenik eta behin unibertsitatearentzat lan egiteko sortzen da; ez da berez terminologia-erakunde, eta hortaz, terminologiari dagokiona jakintza espezializatuaren gestioan kokatu behar du; ekoizpenaz bezala, zabalkundeaz eta normalizazioaz arduratuko da; talde-lana eta disziplina arteko lana bultzatuko ditu, eta estandarizazioari begira egiteko hori duten erakundeetan parte hartuko du. Artikuluaren gainerako orrietan gogoeta eta informazio interesgarriak irakur daitezke bai terminologiaren teoria eta metodologiaren inguruan bai une honetako euskal terminologiari buruz.

Artikulu edo hitzaldi nagusien zer nolakoak azaldu ondoren, gainerako 13 artikuluetan, jardunaldietan aurkezturiko komunikazioak, oso arlo desberdinak lantzen dituztenez, irakurleak ideia antolatuta bat izan dezan, multzotan banatzeko ausardia izan dut.

Lehen multzoan, hornituenean, sartuko ditut hizkera berezien alderdi linguistikoren bat, lexiko-morfologikoa edo sintaktikoa, aztertzen dutenak. Bost dira multzo honetan sar daitezkeenak; begira ditzagun labur-labur, liburuan datozen hurrenkeran.

Lehena, EHUKo Euskara Bereziaren Mintegiarena, “Zer irakatsi euskal hitz-hurrenkeraz eta puntuazioaz? Zabaltzen ditugun ideien egokitasuna auzian” izenekoa da. Bertan, ikuspegi praktiko-didaktiko batetik kritikapean jartzen dira gramatikaren irakurketa estu bati atxikiz eta informazio-egituraren garrantzia ahaztuz eman ohi diren hainbat arau eta aholku.

Bigarrenean, Julio García hizkera zientifiko-teknikoetan izen-sintagma barruko modifikatzaileen, bereziki erlatibozko perpausen eta izenlagunen, metaketak dakartzan arazoak aztertzen ditu eta arazo horiek saihesteko irizpide batzuk proposatzen ditu.

Juan Gartziarena da hurrengoa: “Katafora-esapideak bateratzeko bidean”. Lan honetan testu zientifiko, tekniko eta akademikoetan usu ageri den katafora mota baten gorabeherak aztertzen dira: bi puntuen ondoren doana aurretik ordezkaten duena, egilearen hitz berberak erabiliaz. Gaztelaniaren imitazioz euskaraz egiten diren hainbat erabilera berri eta ilun azaldu ondoren, euskara naturaletik aldendu gabe nola egin daitezkeen proposatzen du.

Laugarrena, Xabier Alberdirena “-tar atzizkiak: oraingo zenbait erabilera berri eta tradizioa” eta bosgarrena, Jesus Mari Makazagaren “-dun atzizkiak” terminogintzan garrantzi handikoak diren atzizki horien inguruko hainbat alderdi jorratzea zuzenduta daude. Jardunaldien antolatzaileetakoa eta liburu honen argitaratzaileetakoa den Alberdirenean, -(t)ar atzizkia duten egituren alderdi ilun eta eztabaidatu batzuk aztertzen ditu, alderaketa diakronikoa eginez Orotariko Euskal Hiztegiaren eta XX. Mendeko Euskara Corpusean atzizki horrekin osatutako hitzen eta egituren artean. Makazagarenean, -dun atzizkiaren zenbait alderdi dira aztergai: aldaerak, harekin osaturiko hitzen kategoria gramatikala, edo -dun atzizkia duten izenondoak kokalekua.

Bada beste multzo bat, aurrekoa bezain koherentea ez bada ere, euskal hizkera bereziaren historiarekin loturiko artikuluek osatzen dutena. Horietako bat historikoa da: Antton Elosegiren “Xede berezietarako hizkerak eta terminologia tradizioan eta 1976 arte”. Lan horretan, euskal testuetatik zein diren hizkera berezikotzat eman daitezkeenak, zein gai jorratu diren mendez mende, zein teknikotasun mailarekin, eta zergatik proposatzen den 1976 urtea euskal hizkera berezien eta terminologiaren eklosioaren abiapuntu bezala. Urte horren aukerarekin lotzen da azterlan historikoaren ondorioa, hau da, urte horretara arteko testuetan ezer gutxi dagoela hizkera berezikotzat eta terminologikotzat emateko modukoa, nahiz eta badauden ikuspegi horretatik ere aprobetxagarriak diren hainbat saio.

Historiarekin ere lotuta dago, baina oso bestelako ikuspegitik Javier Díaz Noci eta Jotxo Larrañagaren “Kazetaritza-euskararen tradizioa berreskuratzeko beharra: Datu-base historiko bat osatze aldera” artikulua. Bertan, euskal kazetaritzaren historian adituok aztertzen dute zer izan den kazetaritza-euskara, haren ekarpen lexiko-terminologikoa, eta izenburuak dion bezala, tradizio horren ekarpenak behar bezala aprobetxatzeko, datu-base historikoa osatu behar dela ondorioztatzen dute.

Hizkera bereziak, eta ez bereziki terminologia, dituzte gai hurrengo multzoan sartu ditudan beste bi artikuluk. Batean, “Administrazioaren iragarkiak: publizitate arloko hizkera?” izenburukoan Axun Aierbek, administrazioko eta publizitateko hizke-

rak parez pare jartzen dituen generoaren zer nolakoak aztertzen ditu, hizkera berezi-tuen teorien sarraldiak eginez.

Beste hizkera berezitu batzuk lantzen dituzte Martxel Ensunzak, Joxe Ramon Etxebarriak eta Jazinto Iturbek “Ikur eta zeinu matematikoen irakurbiderako proposamenak” artikuluan. Ensunzaren tesiaren zati gisa aurkezturiko lan honetan fisikan eta matematikan garrantzia berezia duten ikur eta zeinuen irakurketak euskaraz sorrarazten dituzten arazoak aztertu eta soluziobideak proposatzen dituzte.

Ondoren, artikulua bakarraz osaturiko multzoa: Koldo J. Garai Bilbaoren “Argudioaren erretorika idazkuntzan: gauzen nolakoaz”. Artikulu horretan egileak, ikasleekin idazmena lantzeko erabili ohi duen metodoa lantzen du, definizioaren eta adibideen zer nolakoetan sakonduaz.

Azkenik, komunikazioen artean bete-bete terminologia-gaiak tratatzen dituzten hiru artikulua ditugu. Hirurak, proposatze- edo aldarrikatze-artikuluak dira, oso gai desberdinak jorratzen dituzten arren. “Historia idaztean eta irakastean sortzen diren terminologia arazoak eta proposamenak egin beharra: errege-erreginen izenen zerrenda” izenekoa da Jaione Agirre Garciak aurkeztutakoa, onomastika, kargu eta eta duintasun historikoen terminologia aztertu eta zehaztu beharra azpimarratzen duena. Luis Fernandezek “Euskal terminologia datutegien publikotasuna” izenburukoan, eibartar egileak esku publikoetan dagoen lan terminologikoa, bereziki Euskalterm, herritarren esku, eta ez soilik banakako kontsultak egiteko moduan, jar dadin erreibindikatzen du.

Eta azkenik, Igone Zabalen “Hitz elkartuak eta terminologia: *zelulanitz* bezalako adjektiboen egokitasuna aztertzeko bi ikuspegi” izenburuko artikulua, erabilera terminologikoen ikuspegi kontuan hartzeko eta baloratzeko beharra aldarrikatzen du, hiztegi arauemaitan nagusitu diren irizpide gramatikazale eta tradizionalista hutsei terminologikoekin kontrapisua egiteko.

Liburua, hasieran esaten nuen, euskal hizkera berezitu eta terminologiari buruzko liburu nagusietan hirugarrena dugu, eta beste aldetik, ziklo bat ixten duela esan daiteke. Ziklo horretako lehena, 1989ko Oñatiko jardunaldia, administrazioko hizkera eta terminologia zuen aitzakia eta muina; jardunaldi haietan terminologiaz eta hizkera bereziaz modu orokorragoan hitz egin bazen ere, ez zen helburu nagusia. Bigarrenak, 1997ko biltzarrekoak, hizkera berezi eta terminologia “guztiak” hartzen ditu, juridiko-administratiboei ere leku zabala eginaz. Hirugarren honetan, berriz, hainbat hizkera landu dira, baina oso hein txikian aipatu mundu horretakoak. Zuzenean administrazio-hizkera aipatzen duen lan bakarrak, Axun Aierberenenak, oso aukera zehatza egiten du: administrazioko iragarkien hizkera. Argi dago, beraz, jardunaldi hauekin hizkera berezien eta terminologiaren esparrua ez dela jadanik arlo juridiko-administratiiboari bereziki dagokion zerbait, edo beste aldetik begiratuta, esparru horretako hizkera eta terminologia bere bide propioa egiten ari direnez liburu honek ez digula une honetako hizkera berezitu eta terminologiaren ikuspegi orokorra ematen. Poztekoztat hartuko dugu.

Antton Elosegí Aldasoro